
ITZIAR'TAR JOANES

IDAZKARIAK

Auxe diñosku Garibai'tar Istebek, bere kondaira luzean: Euskaldunak oso itsaslari on, errementari treba ta idazkari bikaiñak dira.

Idazkari bikaiñak berekin dau ixil, zintzo, luma ederdun ta kontugille errime izan bearra. Ixil eta zintzo izatea etxetik ekarri eikezan euskaldunak; nundik ekarri baiña luma ederdun eta patxarazko kontugille izateko beste doaiok?

Berarizko maixu onak izan dauz euskaldunak arlo onetan: Itziar, Madariaga, Iturzaeta, Irigoien eta abar. Eta Itzia'tar Joanes lenengo ta onena.

LUMA EDERDUN

Durango'n jaio zan Itziar, 1522 urtean. Etxe oneko seme, Italia'n ibilli zan bere gaztezarroan. An ezagutu ebazan Ludovico de Henricis, Tagliente ta Palatino jaunak, lumagaietan maisu andi ziranak.

Eta eurenak ikasi ta bereak asmatuz, mundu guztiko maisurik andiena biurtu zan.

Idazkera bi ziran ezagunak orduan: «procesal» eta «cancilleresco» deituak ziranak. Lenengoa, kirrimarrazko izki zantarrekoa; ta kakodun izki motze-koa, bigarrena.

Beste idazkera barri bat asmau eban Itziar'tar Joanes'ek; eta «letra imperial» deitu eutsoen gure gizonaren idazkera ederrari. Laster zabaldu zan idazkera barria mundu guztiaren zear; eta berau erabillia izan da, oraintsu arte.

«EL ARTE DE ESCRIBIR»

Ez zan gizon makala! 25 urtetan idatzi eban bere liburu au; eta ez edozelan idatzi bel Bertan dakaz Ebertar, Gerkar ta Arabiar abakak be, izki borobil eta ederrez egindakoak.

95 zurezko orritan ziriztatu edo kopostatu bear izan ebazan, orretarako. Lan luze ta gatxa!: izkiak ankaz-gora margoztu, lenengoz; eta aizto musturraz ziriztatu, urrengoz.

Oso arrera ona izan eban liburuak. Bein da barriro argitaratua izan zan; eta orduko ikastetxe geientan onartua.

Idazkariak kontugille bizkorra bear daua izan, eta laster atara eban orretarako beste liburu egokia: «Aritmetica practican eritxona.

MAIXUA

Laster egin zan izen andiko geure Itziar; eta Españaiko errege, Felipe II'ak beregan artu eban, bere seme Karlos'en irakasletzat. Ez ori bakarrik; Escorial konbentu andiko liburu eder ta apaiñak idatzierazo eutsozan.

Zaragoza'ra etorri zan andik laster, ta eskola andi bat eratu eban berton. Bere ikasle izan ziran gizaldi artako idazkeririk onenak. Eta Peru Madariaga arratiarra, danetan onena. Gai oneri buruzko beste eskola bat eraikiko eban onek Valencia'ko urian; eta an, aren antzeko beste liburu bat atara.

Maisu ta irakasle eredu izan zan Itxiar. Gauza ederra dala oroimena-esaten-eban-; ez dala baiña ikaslea buruz ikastera beartu bear. Maitez artu bear daua maisuak bere ikaslea, ta ikasterako berorazo ta azkortu.

JAKINTSUA

Beste liburu bat argitaratu eban ikasleen eziketari buruz. Gai asko erabilten dauz berton; eta filosofi ta teologi gaiak, besteak beste.

Oso interesgarriak dira bizi-erio ta gogo-soiñari buruz diñoskuzan gauzak. Eta ez dira bertan-bera itxitzekoak Kristoren Nekaldiari buruz azaltzen dauskuzan buruera, oldozkari ta usteak.

Izkuntzalari, ertilari, ezilari, irakasle, jakintsu ta jainkozale..., abade egin zan, azkenik 51 urtekoa zala. Ez daukagu, baiña, bere abadetza ta bizitzako azken urteen iñungo barririk.

URKIOLA'k